

Ataunen eta Lazkaon euskarazko liburuak merkeago eros daitezke ekainaren 30era bitartean

Opor garaian irakurtzeko astia eta patxada gehiago izango den itxaropenean, euskarazko liburuak udaberri bete-betean daude. Goierriin Ataunen eta Lazkaon jarri dute argitalpenak merkeago erosteko moduko aukera. Topaguneak antolatuta eta Goierriko Euskal Eskolak nahiz Murkondo elkarteak bultzatuta, indarrean da Irakurri, gozatu eta oparitu eskaintza kanpaina.

Bi herri horietako edozein bizilagunek %25eko deskontua jasoko du egitasmoan eskatzen den lantxoa eginez gero. Bi elkarte horietako bazkideek, berriz, %50eko deskontua daukate.

Egitekoa xumea bezain aberasgarria da: norbere udalerriko liburutegi publikora joan, eta lehenagotik irakurritako euskarazko edozein libururen erreseinatxoa bete behar da. Bibliotekan fitxa bat emango diote irakurleari; liburuak utzi ditzkion sentipenak, zapoak edo, besterik gabe, galdera xeheen erantzunak idaztea nahikoa da.

Fitxa betetzeagatik, trukean deskontu-txartela eskuratuko du irakurleak. Horrekin Lazkaoko Gerriko liburu-dendara joan, eta han egingo diote prezio beheratua. Goierriko Euskal Eskolako eta Murkondoko bazkideek erdi prezioan eraman dezakete euskarazko edozein argitalpen. Irakurgaiak soilik sartzen dira kanpainaren onuraren barruan, ez testu liburuak edo dibulgaziokoak.

Laugarren urtea Lazkaon

Irakurri, gozatu eta oparitu izeneko eskaintza Lazkaon indarrean den laugarren urtea da aurten. Euskal Herriko hainbat herriren artean, Lazkaon hasieratik izan da deskontuarekin euskarazko liburuak erosteko aukera. Aurten, gainera, Ataunek bat egin du ekimenarekin, Murkondoren bidez. "Plana gustatzen zaigu, erraza delako eta euskaraz irakurtzeko zaletasunari bultzada ematen diolako. Gainera, jendea udal liburutegira bideratzen du, horretarako ohitura indartuz", azaldu du Goierriko Euskal Eskolako Joxepa Madariagak.

Norberarentzat ezezik, oparitarako ere liburuak merkeago eskuratzeko bidea bada, antolatzaileen iritzian. Hirugarren bati, liburua bezalaxe, deskontu-txartela bera opari dakioke, txartel horrekin "feria bat" sortu nahi baita.

"Ez dugu ohiturarik euskarazko liburuak erosteko, eta lana egin behar da", ohartarazi du Madariagak. Kanpaina apiril azkenean hasi zen, eta ekainaren 30era arte da. Udaberriak gehixeago iraungo du aurten.

'Leturiaren egunkari ezkutua' publikoki irakurriko dute Lazkaon, ekainaren 12an

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi euskal idazlea oroitzeko eta omenaldi herrikoia egiteko, haren eleberri ospetsu baten irakurketa publikoa antolatu dute, Lazkaon. Leturiaren egunkari ezkutua liburua (1957an argitaratua) jende aurrean eta etenik gabe irakurriko dute hainbat lagunek. Urtarrilean hil zen Txillardegi, eta Goierriko Euskal Eskolak idazlea nahiz haren lana goraipatzeko "ekitaldi handi bat" izango da.

Irakurraldia goiz eta arratsalde izango da, ekainaren 12an, asteartea. Liburu guztia irakurriko dute, 65 bat lagunek. San Benito ikastolako zein Maizpide euskaltegiko ikasle-irakasleak eta Lazkaoko herritarrak ariko dira, Gerriko Txokoan. Ondoren, Xabier Mendiguren beasaindarrak Txillardegi buruz hitz batzuk egingo ditu.

Parte hartu nahi duenak Gerriko liburu-dendan eman behar du izena, eta txanda hartu, noiz eta zer atal irakurriko duen zehaztuz. Bakoitzari irakurriko duen zatiaren kopia emango diote.